

**ANJEL BIDAGUREN, OLERKARIA
(1916-1991)**

Sarrera


Orain dela ia zortzi urte Anjel Bidaguren ustekabean hil zenean, *KARMEL* aldizkariak haren omenez bere 40 olerki argitaratu zituen, hau da, gehienak, 35, azken urtean *KARMEL* eta *ZER* aldizkarietan argitaratutakoak eta 5 argitaratu gabeak.

KARMEL zenbaki honetan beste asmo bat dugu: haren bizitza eta lana aztertzea eta olerki guztiak argitaratzea.

Zergatik omenaldi-usain gozoko lan hau?

Batez ere *KARMEL* aldizkarian idazten zuelako eta, olerkari zen aldetik, bere burua hementxe agertu zuelako... Ia ezezaguna dugu gaurko euskal literaturan, eta beste aldetik ez da isilean eta ezkutuan uztekoa, ezagutu beharrekoa eta olerkari onona baizik. Bere garaikoa eta bere garaiko estilo eta idazkera duena, haina olerkari bikaina.

KARMEL aldizkarian 1980-1990 inguruko urteetan asko idatzi izan duen olerkarietariko bat dugu. Olerkari hauetariko batzuk, olerki-bideak inongo eskolatan ibili gabe, euren kontura ikasitakoak dira; nekazariak, langileak etab., ikasketa handirik egin gabekoak. Gernika aldean hiru izan ditugu horrelakoak: Sabin MUNIATEGI (beraren olerki guztiak Julen Urkizak argitaratu zituen *Karmel-Sorta-3an: Olerki guztiak. Larrea-Zornotza*, 1990, 1155 or.), Balentin AURRE-APRAIZ (*Egunen bidean*,



Larrea-Zornotza, 1994, 416 orr., Karmel-Sorta-6), eta Anjel BIDAGUREN bera. Honek gaztetan eskola ona hartzeko aukera izan zuen... *Karmel* aldizkarian idatzi ohi zuen legazpiar bat ere hauen garai eta giro berdintsukoa genuen: Martin UGARTE. Baserritarra eta olerkari ona (*Jatorriaren Errotik*. Legazpiako udala, 1986).

Anjeli buruz oso gutxi agertu izan da; gehien bat Aita Santik idatzitakoa: *Bizkaiko Olerkariak* (Larrea, 1990, 295-298); hemen Anjel

beraren testu labur autobiografiko batzuk agertzen dira, guretzat interesgarriak eta hemen gogora ekartzen ditugunak.

Baina Anjelen bizitzako argibideak jasotzeko beraren familiara jo dugu, hau da, Luzia Gardoki beraren emazteagana eta Anjel Luis semearengana. Eskertzen diegu hauei hain onbera izana.

Aita Santi, beronekin hasi baitzen Anjel olerkiak argitaratzen, izan zen olerkari legez aitortu eta agertu zuena bere *Euskal Literatura* eta *Bizkaiko Olerkariak* liburuetan.

I. HAREN BIZITZA

1. Zertzelada biografikoak

Lumon.

Anjel Lumoko elizatean jaio zen 1916ko azaroaren 25ean. Beraz, gernikarra dugu.

Bere gurasoak Kandiko eta Frantziska... Hiru urte edo zituela hil zitzaion aita...

Zortzi urtekin hasi zen ikasten Lumoko auzo-ikastolan... Hemen guztia zen erdaraz... Berak dioskunez, "Elizan bakarrik ikasten gendun euskeraz. Geure denporan agertu zan dotriña barri bat, euskera txukunean, eta txiki-txikitatik ikasi gendun bera ondo irakurten".

Bere haurtzaroko oroitzapenak hamalauko batean bildu zituen, orduko mundutxo gogora ekarriz: Lumo:

*Eguzkiaren orietan bilbilik nago
neure balkoian, arratsak arnas bitartean.
Ezearen bakea begietan; gorago
Lumoko tontorra, txairo, urre-auts artean.*

*Elizako torre luzea erdi lo dago
zeru goiko sabai urdinaren etortean.
Arri doneak, ainbat ume giñanen zaingo,
asko joanak Jaunaren atsedeen betean.*

*Begira nagokizu ene Lumo maitea
ume aroko neure bi begi garbiekin;
arima t'aragian dabilkidaz bi pena.*

*Aita, gazterik il, ez ezagutzearena
-ain ume koxkor ni, zeri jakin gabe zotin-
t'ama merezi aina ez maite izatea.*

Seminarioan.

Hamaika edo hamabi urterekin Arteako seminarioan sartu zen. Hemen egin zituen ikasketak, berak dioenez "lau urte eder, poz gozoz gogora dodazanak". Hemen hasi zen euskara sakontzen. Aita Santik, Anjelengandik jasota, hauxe diosku: "Lekeitioko irakasle bat, On Jose Gartzia izan eban gidari, eus-

 FOLIO 23 REGISTRO CIVIL DE 40 PM CELEBRADO EL DIA 24 de entre Angel Didolapuren Amien	MATRI Nacido el día de de en <u>Leizorua</u>, provincia de <u>Virreya</u> hijo de <u>Leandololo</u> y de <u>Francisca</u> vecino de <u>Leizorua</u>, provincia de <u>Virreya</u> calle o plaza de , núm. Profesión <u>Empleado en Banca</u> Estado civil <u>soltero</u>	(1) <u>Leandololo = Virreya</u> <u>Val.</u> Si hubiesen otorgado capitulaciones matrimoniales, se indicará la fecha de la escritura, lugar del otorgamiento y nombre del Notario autorizante. Caso contrario, se deberá constatar que no se otorgaron capitulaciones matrimoniales. REGISTRO
PROVINCIA DE <u>Leizorua</u> PUEBLO DE <u>Orreaga</u> MONIO de mil novecientos <u>celestinos</u> años y <u>Lucia Forolapuren Arla</u>	Nacida el día de de en <u>Orreaga</u>, provincia de <u>Virreya</u> hija de <u>Didolapuren</u> y de <u>Martina</u> vecina de <u>Orreaga</u>, provincia de <u>Virreya</u> calle o plaza de , núm. Profesión <u>Labrador</u> Estado civil <u>soltera</u>	<u>Orreaga</u> 26 de Agosto 1990 o. El ENCARGADO DEL REGISTRO, <u>Leizorua</u> — 3 —

kal joskera, aditza eta, baliotsuena, euskera maitatzen irakatsi eutsona".

Gero Gasteizera. Hemen beste hiru urteko ikasketak burutu zituen. Gasteizen Manuel Lekuona ezagutu eta honek sorturiko Kardaberaz bazkunaren barruan ekin zion gogotsuago euskal lanari. Orduko ikasle batzuek lan politak egin ohi zituzten euskara arloan; hauen artean dugu Anjel ere. Filosofiako gaiak ikasteari ekin zion bereziki; geroago ere filosofiako liburuekin ikusiko dugu buru-belarri, irakurtzen, pentsatzen, baita gai batzuk euskarara itzultzen ere...

Udako hil batzuk Saturrarango seminarioan igaroko zituen...

Hamasei urte zituela hil zitzaion ama....

Gerrateko arazoak.

Beste euskaltzale batzuen kasuan bezala, gerra zibilak eten eta lardaskatu zituen Anjelen bizitza, ikasketak eta loratuz zihoan haren euskal kulturaren baratzea. Gerrara joan beharra izan zuen. Lehenengo abertzaleen bandoan hasi zen, baina gero, gerraren beraren gorabeherak hartara eraginda, Francoren armadan erizain izanez, batez ere Errioxa aldean, Ebroko frontearen.

Guerra ostean, 1940an, soldadutzara joan beharra izan zuen Burgosera; hiru hilabete egin zituen.

Gernika-Lumora itzuliz, hemen ezbehar latz bat gertatu zitzaion: bere koñatua onaztarri batek jo eta bertan hil zuen. Arreba, ume txikien ama, alargun; Anjel harekin bizi zen, hari laguntzen...

Kontularitza ikasi zuen, eta lanposturen baten bila zihardu; bitartean, berriz, arrebari laguntzen, etxean, baratzean...

Osaba baten bidez lortu zuen (oposizioak eginez) lana: Hispano-Amerikano Bankuan... Kontularitza arloan. Hemen egin zuen lan 1981ean erretiroa hartu arte. Azken zortzi urte-
edo ahaldu izan zen bankuan.



Urte askoan bankuan lan eginda, arratsaldetan kontularitza eramaten laguntzen zuen zerratoki batean, okindegi batean eta lantegi batean; bankuko ahaldun-zeregina hartu zuenean, lan-txo horiek alde batera utzi beharra izan zuen.

Familia berria.

1940ko urtarrilean neska bat ezagutu zuen Gernikan, Luzia Gardoki, Ajangizko Antzosolo baserrikoa. Urte asko geroago, orain arte argitaratu gabe izan den "Emazte maitea" olerki ederean gogoratuko du Anjelek:

*Gogoan, ene maite, eguna
gu alkar ezagutu giñana?
- Gernikan, astelen erdijai -
gu bion begien argi-dantza*

*asi zaneke a egun otza
gogoratzen ene emazte? Bai?...*

Eta geroxeago, beste oroipen hau:

*Ba dakit gogorako dozuna
gure lenengo mosu biona,
zure ezpan gorrietako
dardara aginkatu nebana,
larrosa bidun oxin sakona,
lurrin-txoko onenetako.*

1948ko apirilaren 24an ezkondu ziren Anjel eta Luzia. Gorago aipatutako olerkian, bere emazteari egindakoan, dator ondorengo hau:

*Beti gu biok bat, zu eta ni,
bion maitearen kate-begi
Zu zeu nire eta ni zure
besoetan marapillo batu.
Indar zoro batek alkar ditu
soin, gogo zure, nire, gure.*

Olerki berean beste ahapaldi hauek idatziko zituen bien bi-zitzako urteei begira:

*Geu bete-betez ertzik ertzera
gure bide onen zabalera.
Ordu barik, joan da joan,
naiz ta eguzki goiztarrak agur
edo ta illargia argi lapur.
Guk beti maitea lepoan.*

*Urre autsak eralgiz Eguzki
pago-adar arte ta sagasti,
ugalmen pozgarri jario.
Gu, geu giñan eguzki, pagadi,
urre-auts, geu biok lore di,
azi iturri, azi mandio.*

Ezkonberriak lehenengotan, lau urtean, Don Tello kalean (1) bizi izan ziren, hau da, berak lan egiten zuen Hispano-Amerikano bankuaren aurrean. Gero beste lau urte Puerto kalean (1)... Eta azkenez, 1956tik aurrera San Martin de Murua Kalean (orduan Nuestra Señora de Begoña zeritzan).

Hiru seme-alaba izan zituzten: Fernando (1949), Ana (1950) eta Anjel Luis (1953)... eta bilobak nahiko...

Beraren izaera.


Ezagutu genuenoi gizon irribarretsu eta isila begitandu izan zaigu beti... Bere olerkietan ere barnekoia, sentimenduz betea ageri da... Ez zen tabernetan baxoerdiak edanez lagunekin ibiltzen zenetarikoa, ez... Eta bereziki erretiroa hartu ondoren, bizitza isila eta baketsua egin ohi zuen... barrutik ikusita, benetan aberatsa: goizean emazteari etxean lagundu, eta gero bere gelan irakurri, pentsatu, idatzi... Arratsaldeetan emaztearekin ibilaldiren bat egin ondoren, berriro bere gelara. Han irakurtzen, idazten... bere oroitzapen eta sentimenduen harian olerkiak lantzen eman ohi zituen ordu luzeak...

Berak adierazten digu ondoen egoera hau "Emazte maitea" olerkiko bertso batean:

*Orain, gure negu aro ontan
ba zenki, ene, zein eder yatan
gu bion oroimen eder au.
Sutondoan, amatau eziña
bion maite-mukur ondakiña.
Biok il artekoa ba dau.*

Heriotza.

Uste-ustekabeen joan zitzaigun. Normaltasun osoz bidali ohi zituen bere olerkiak *KARMEL* aldizkarira; Larreako batzarretara ere hutsik gabe joan ohi zen... inolako gaitzen susmorik sorrarazi gabe... 1991ko abenduan Prójano-ra (Errioxa) joan zen bere etxekoekin hiletako meza bat zela-eta... Han ondoezak eman zion eta Gernikara eraman zuten... Etxean hobeki zegoela eta lasai egoteko esan zien ingurukoiei. Semeak kalera joan ziren, emaztea bere ondoan geratuz... eta bat-batean berriro ere gaizki ikusi zuen bere burua, sabeleko minekin egon ezinik... Galdakaora eraman zuten, eta Maria Sortzez Garbiaren egunean, abenduaren 8an, goizeko seiretan egin zioten ebakuntza... *KARMEL* aldizkariaren zuzendaria ere hara joana zen..., baina egun gutxi barru hil zen, 1991ko abenduaren 17an, arratsaldeko seirak eta laurdenetan...



Hil aurretxoan Anjelek *KARMEL* aldizkarira olerki batzuk igorri zituen. Eta harritzekoa da olerki hauetan, misterioski, Argiaren irrika eta Jainkoaren ondoan izateko gogoia adierazi izana; beraz, aurreikuspen gisa haren izpiritu finak sumatutakoa, egun batzuk geroago Argiarengana eta Jainkoagana hegana egin baitzuen.

Hona hemen "Kolko epela" sonetoaren hasiera eta amaiera:

*Zer ete geroaren bestalde ain ixilla?
Ni or naiz bere ezkutuz beteriko bidean
neure poz labur eta oñazeen luzean,
fedez-fede, esperantza otzari babes billa.*

*Luzaidazu, ene Jaun, Zure esku barkabera
azken pausoarentzat ziurtasun tinkia
eta arnas gozoz nadin Zure Kolko otzilean.*

"Argia" sonetoaren amaiera ere adierazgarria da:

*Argi bat gura neuke, ametsen betekoa,
nire azur guztiak erretzen su beroa,
zuri gorri bat nadin ososorik garretan.*

2. Beranduko idazle eta olerkaria...

Guerra aurreko apaizgai, beste askorena bezala, gerrate zitak ito zuen haren bizitza kulturala eta etorkizun bikaina, eta isildu beharra etorri zitzaion... Orduko legea zen... Baina Anjelen barruan idazle-sena irakiten zen eta noizbait esnatu behar euskal idazle garrak...

Badakigu bere umeei euskara irakasten ziena; aditza eta gramatikako hasi-masiak idazten zizkien, ikasteko aukerak emanez... Aditzaren paradigmak eta euskal gramatikaren beste zertzelada asko idatzirik zeuzkan seme-alabei irakasteko. Herriko eskolan, hauek, erdal giro itxia zuten eta horregatik arduratzen zen aita hainbeste euskara ongi ikas zezaten. Euren gastutxoetarako eman ohi zien diru-saria ere gehitu egiten zien euskaraz egiten zutenei, kopurua bikoiztuz...

Bere alaba Anatxori bizkaiera txukunean egindako gutunak gordetzen dira; baita Anjel Luis semeak, aitari buruz, oraintsu idatzitako gogoeta batzuk ere.



Baina haren euskaltzaletasuna familiatik kanpo ere, apurka-apurka agertuz joan zen... Horregatik, 80ko hamarkadan Anjel Bidaguren olerkaria paperetan agertzen hasi zenean, bere adiskide Puxanak "Gaztetan mutu eta zartzaroan kantari" zela esan ohi zion. Aita Santi Onaindia karmeldarrak ere harriturik esan zion: "Orainarte nondik nora ibilli zara?"...

Anjelek berak azaltzen digu bere lanen hasiera: "Gizona bere inguruak darabil eta ni be neure inguruak nerabilen euskeratik aparteko mundu txikian. Bizirik da oiartzuar aitagoiaren azia, lo, baiña bizirik egoan nire aragian eta egun baten, berez-berez, loratu zan barriro. Euskal aldizkari batzuen barri jakin nebanean, eurak eskuratzeko alegindu nintzan, eta geien arpidedun, irakurteari ekin neutson leenengo letratik azken puntaraiño".

Beraren etxekoek ere adierazi digute asko irakurri ohi zuela; filosofiako liburu bat ere euskarara itzultzen aritu zela... Zoritxarrez lan horiek galduak dira. Erretiroa hartu baino hamar bat urte lehenago hasi zen itzulpen batzuk egiten...

Baina Anjel olerkari legeaz agertu da handi batez ere; eta olerkari legeaz Aita Santi Onaindia eta karmeldarren aldizkariaren babespe epelean hasi eta bizi izan da. Anjelek berak honela aitortuko digu:

"Aldizkariaren bidez, ba-neukan nik Larrako olerki-egunen barrin, eta bein, olerkariaren moltzoa gizontzeko baiño ez ba zan be, neuk be zerbait egin bear nebala eta olerkitxo bat bialdu neban bertara. Aaztuta neukan nik neure saiotxo ori; baiña, ara, egun baten *KARME* en argitaratua nun datorren. Ain idazle ospetsuek biribildutako aldizkarian ikusi nebanean nire olerkia, otzikara antzekoa nabari izan neban neure azalean eta, bene-benetan, ezeren lotsa barik autortzen dot artu neban poza andia ta gozoa izan zala. Gero, euskeratu neban M. Hernández'en poema bat eta Aita Santiri bialdu neutson argitaratugarri ba eritxon eta *OLERTI* n agertu zan. Polito euskeratua zala esan eustan".

1981ean, erretiroa hartu zuenean, asti gehiago izanez, Anjelek kementsuago ekin zion olerkiak egiteari. Eta laster olerki-sariketa batzuetan esku hartu zuen, eta baita sari batzuk irabazi ere. Lehenengoz Aita Santi Onaindiak antolatu ohi zuen Larreako Olerti eguneko sariketetan esku hartu zuen: 1983an "Koldar" olerkiarekin aipamena lortu zuen. Hurrengo urtean, 1984an, "Emazte maitea" izeneko olerki ederra izan zen saritua.

1986an bi sariketatan lortu zuen lehen saria. Ekainaren 18an "Asociación artística Vizcaina" k eratutako sariketan, euskarazko atalean lehen saria lortu zuen "Bakarrik berbetan" izeneko poemarekin (10 olerkiz osaturiko sorta da). Eta abenduan Hondarribiko Udalak eratutako "Satarka Lehiaketa" n esku hartu zuen, "Aize orietan" izeneko olerkiarekin lehen saria lortuz.

II. OLERKARI

Anjelek olerkari legez lortu du bere lekutxo euskal idazle-en artean. Orain zehatzago aztertu nahi genuke haren lana. Haren olerkien argitaratze-bideak, eta haren olerkien estilo eta baliotasuna.

1. *Olerkari aldizkarietan.*

Lehenxeago aipatu dugunez, beranduko olerkaria dugu... 1974an agertu zen *KARMEL* aldizkarian "Ene lagun" izeneko lehen olerkia. 58 urte zituen orduan. Hurrengo urtean Principe de Viana-n, Aita Santik zuzentzen zuen olerki atalean agertu zuen beste olerki bat. Gero, 1980-1984 urteetako Olertin agertu ziren hurrengo bederatzi olerkiak. Eta geroko urteetan ere olerki asko izan dira argitaratuak Karmel eta Zer aldizkarietan. Azkenez, Hondarribi aldizkarian agertu ziren, herri honetako udalak saritutako zortzi olerki...

Principe de Viana aldizkarian olerki bat argitaratu da, Hondarribian 8, Olertin 19, Zer-en 56 eta Karmelen 108. Gehienak bera bizi zela argitaratu ziren, baina bera hilda gero ere *KARME*Lek 40 bat olerki argitaratu izan ditu. Zenbaki honetan beste argitaratu gabeko batzuk ere agertzen ditugu, bere bizitzako azken hamabi bat urteetan idatzi zituen ia olerki guztiak. Kopuruz ez dira gutxi; ia 200 olerki bere-bereak, eta itzulitako beste olerki batzuk ere bai.

2. *Anjel Bidagurenen olerkigintza.*

Bizitzak hara eta hona eramana, ez zuen aurkitu urte luzee-tan giro egokirik bere barruko olerki-altxorra ustiatzeko. Barnean erneminetan zuenak ez zuen aro onik izan guri-guri-erne eta loratzeko... Batzuentzat bizitzako joan-etorriak, astrapalak, eguneroko denboraren isuri arrunta olerki-gai bihurtu


ohi da; beste batzuentzat, berriz, eragozpen. Eguneroko isuri arruntetik pixka baz alendu eta beren baitan bildu beharra izaten dute hauek, ederraren lantegian sartu ahal izateko. Han aurkitu ohi dute mundutxo liluragarria, errealitatez eta ametsez aberatsa; bien arteko nahasketaz egina. Anjel Bidaguren azken hauetarikoa dela dirudi: bere gogoaren barrunbean bildu eta erle langileak bezala, ezti gozoa lantzen duenetarikoa.

Olerkia asko lantzen duenetarikoa dugu. Gogapen eta sentimenduak jantzi-arin agertu gabe, apain-apain janzten ahalegintzen dena. Ederraren lantegian hitzezko eskultura polita lortu arte ez du onik izango: kolpeka, igurtzika eta ukituka...

Horregatik berandu murgilduko da olerkariaren lorategian, inguruko giroak eta gertakari sozio-politikoek ez baitzioten batiere lagundu horretarako...

a. *Gaiak.*

Gaiei begirada arin bat eginez, gai unibertsalak, ohikoak darabiltzala ohartzen gara: Bizitza, itxaropena, maitasuna, heriotza, denboraren joana, etorkizunaren ilun eta argia... Jainkoa eta erlijioa ere, agerian nahiz ezkutuan, baina hortxe daude. Bere garaiko beste olerkari batzuekin alderatuz, zenbait joera adierazgarriak dira. Gure olerkari honengan eta beste batzuegan nabari den aldea ñabarduretatik harantz doala esan daiteke. Garai horretako olerkari askorengan, Aurraitz-engan esaterako, ageri den Aberriarenganako gar bizia, ia gurtza antzekoa izateraino iristen dena, ez da hain indartsu ageri gure olerkariarengan; beste horrenbeste esango genuke baserri-giroaz eta izadiaz ere. Jaioterriz haren hur-hurrekoa zen Aurraitzengan baserriak eta izadiak lilura aparta zuten. Anjelen gairik gogokenak, osterak, maitasuna eta sentimenduen ingurukoak dira. Itsasoa, gaua, ilargia, egunsentia... ere ohikoak dira eta haren olerkietan maiz ageri direnak. Baina hauek, gehienetan, ez darabiltza olerkietako gai gisa, beste gai batzuk adierazteko irudi



eta baliabide gisa bai-
zik.

Sentimenduak bi-
hotz hondoa kolpatzen
dutenak dira; zauri
minberaz barrua zizta-
tzen dutenak. Ekaitz
arteko itsaso kizkurra-
ren antzeko bihotz
kezka-tsu eta larridu-
razkoa adierazten tre-
bea dugu. Batzuetan, ia
etsipenez jota agertu
ondoren, kontraste an-
tzera, bake-bakean, zo-
rion betean eta ezialdi
gozoan datorkigu.
Bizitzak berak ere hala-
ko gorabeherak izan
ohi ditu.

Maitasuna adierazte-
ko euskarririk sendoenetarikoa bere emaztea du. Era batera
edo bestera, baina sarri azaltzen da. "Ex abundantia cordis os
loquitur" esan ohi zuten antzinakoek; hau da, bihotzak ugari
duenetik hitz egiten du ahoak.

Bakardadea, batez ere bere gelakoa, maite du eta sentimen-
du gozoak adierazi nahi dituenean, bera bakarrik olerkietarako
goi-argiari deika ari denean nahiz emaztearekin gozo-gozo ari
denean, ekarri ohi du gehienetan.

Beste gai nagusietariko bat heriotzarena da. Era askotara
adierazten digu: larriduraz, iluntasunez, ezinaren zulotik garra-
sika nahiz itxaropenaren leihotik bare-bare begira. Beti ere mi-

nez eta bihotz kolpatua ezkutatu gabe, baina era berean ezinbestean bidera datorkigun zorion-argiari itxaroten...

Puska-puska egin ohi diren ametsak edo amets zapuztuak dira haren olerkietan maiz agertzen diren beste gaietariko bat. Hauetan errealitatea bere aurpegirik garratzen eta ilunenaz adierazi ohi digu.

b. *Olerkietako puska adierazgarri batzuk.*

Olerkietako ahapaldi edo puska batzuk azpimarratu ditugu; ez, agian, onenak direlako, irakurri ahala, haren estiloaren adierazgarri izan daitezkeela deritzogulako baizik. Puska bakoitzari, erara datorrenean, iruzkin txiki batzuk egingo dizkiongu sarreran:

Badaki olerkari dela; bere bihotzondoa erneminetan somatzen du. Bere ahaleginen emaitza urria dela diosku, baina "maite ditut neure bertsoen berba umilak" esanez amaitzen du sonetoaren atal hau; "Apurrak" jarri dio izenburua:

*Ba dakit nik utsak direla nire bertsoak,
fruitu txikol, ildo errean ogi bakoak.
Ur txikiko nire uainen doinu kikilak,
ur andiko ozenagoen indarrak ilak.*

*Eder bila, letra motx, lore usain bakoak,
mozkor bako ardau gorria bezelakoak.
Ala ere, ain diren arren uts ta sakilak
maite ditut neure bertsoen berba umilak.*

Olerkiak egitea, hitzezko lorategian aritzea eder zaio; zorion-iturri zaio. Hala aitortzen digu "Pozaren arian" izenburua duen olerkiaren bigarrean atalean:

*Neure bi esku oneitan daroat dingili
egun oroetako goiz barriak igorri
oi deustan sorginkerizko akara ta lili
aroko pozaren zoramena, zuri-gorri.*

*Joan - ene ibili arinean - etorri;
ni olerkirik olerki ba nabil ibili
begira nundiko daun poz onek jatorri.
Odolean egon ezin baten kilikili.*

*Nik bakarrik dakit kanturik kantu noala
t'une bakoitza dala biziaren egia,
apurrago eta politagoen mirari.*

*Ta gauzarik xoil ta txikienean ba dala
milla eguzkiren urrez beteko argia
eunduteko bearrezko litzaken aina ari.*

Eta olerki beraren hirugarren atala honela amaitzen da:

*Poza, ene poza, biotz beteko zirrara,
odolik odol dabilkidan maite uyola,
erio baltza bera baño gogorragoa,
neure atsegin oroan iturri polpola.*

"Gero" du izenburutzat hurrengo olerkitxo honek. Hona az-pimarratutakoak:

*Ez adi illunpetan galdu
gaua ba yoak urbera,
igoik ametsen altarara
eta argiño barriak biztu.*

*Ezeik atzera begiratu,
txorta zimel bat dok joana,
bizi-ibaian itoz doana,
aspaldi yok atsona galdu.*

Pentsamendu hau, iraganari begiratu gabe aurrera egitekoa, behin baino gehiagotan dator haren olerkietan. Hona hemen beste olerki bat hari berekoa; izenburua ere adierazgarria: "Doana doala".

*Doazela joan egun lengoak.
Gogora zertako argi itzaliak
jaikiko ba dira zuriagoak
gozoro laztantzen gure begiak?*

*Goizoro jaikiko argi barriak
betiko galduen ondorengoak,
euren gun pareko urre-mamiak,
dizdira ta illun bardiñekoak.*

*Doana doala t'egun barrian
onez bekigu bai une bakoitza,
argi puntu gozoz bete-betea.*

*T'illunak jotean biotz larrian
gogora laburra dala ekaitza
t'ur dogula danok aterrunea.*

Hau hamalaukoan edo soneto eran egindakoa da; izenburu bera du eta eduki berdintsua bederatzi silabako laukoetan ondutako olerki honek ere. Hiru ahapaldi hauek azpimarratu ditugu:

*Oroimenaren bidertzean
joanari dei alperreko.
Gaurko aize kantari onek
ez dau geiago abestuko.*

*Baña eta zeren ardura?
Txoriak eta sagardiak
abestuko. Adin barri bat
ba dakarst niri bizi naiak.*

*Neure esku bi batuetan
baitu daroat bizi poz au,
atson gozodun lore eder.
Beronek ni koroituko nau.*

Aurreko hauen beste aldea erakusten digu, ordea, beste zenbait olerkitan, bizitza eta itxaropena urtuz, heriotzaren aurpegi ezezagun eta iluna agertzen digunean. Errealismo bizi-biziz dagerkigu mamu antzera arima kolpatzen duen herioren irudia. Soneto bikain honi "Betiko loa" jarri dio izenburutzat:

*Neure egunok badoakidaz geldi-geldi
ta eurokin batera apurka esperantzak.
Bildurraren ate baltza laster yat idigi.
Bai ete abarorik bestaldeko baratzak?*

*Ez dakit ba dauan orririk ango zugatzak,
eremu gorria ete dan ala belardi;
baña, bai itunak sarrerako txilin otsak.
Poza odolustutzen aieneka irudi.*

*Oñak dardar, geldi guran, aurrera bear au!
Ba dantzut bidertzeko ixillen asperena,
ur-ur dakust illunek landutako soloa.*

*Arresi onen barruan beti ete da gaua?
Berarenik ezer ez dakit: doi-doi izena,
illek ondo gorde baitaroe euren loa.*

Herioren altzoan zer gordetzen den galdetzen du olerkariak; hain hurbil eta hain geurea dugun herioren sekretua zer ote den:

*Eriok altzo barruan zer gordeten ete?
Gau baltza ala argi gori eguerdikoa?
Larria? Itxaroari eusteko kakoa?
Illek eurak zer ete dira: Uts ala bete?*

*Zelai zabala ete da mundu au dan beste?
Itzal aundiko arboladi bide bakoa?
Illen begietan zer? Barre ala malkoa?
Eta noiz arte bere kolkoan? Zenbat urte?*

Ildo beretik ari da "Pozaren laburra" izeneko olerkian:

*Izarren begiei mosuka nai neuke gora,
Baña, nik egoak ditut bizienak jota.
Odol ustelak, bor-bor, datorkidaz agora
zotiñak be itota.*

*Laster baten naiz ni buztin zokillen azpira,
eguna gauaren zuloetan dan antzera.
Erioren golde ugerrak sartuko dira
zorrotz nire larrera.*

Aurrekoen sail berean sartuko genuke "Amaierakoa" izenburutzat duena. Hona lehen ahapaldia:

*Arrats beera laburretan argi motela
ibai ixilean apurka doan bezela
noa ni be, ori zimet, argiño laburra,
urte moltzoeu ubide tristeko apurra.*

Heriotzaren pentsamendua dakar "Izarrak" izenburuaz landu duen olerkian ere, baina hau gozoagoa, politagoa da, bere irrika biziak adierazten dizkiguna:

*Arratsa doan bezela gura neuke joan
irribar gorrixkak ene begi eta agoan.
Negu otzera orduko, elaien antzera,
gura neuke betiko loen lur epelera.*

*Antxe gura neuke egon beti bertan-bera
asetuz neure bizi guztiko amets lera,
kantu zaarrak bezela aizeen lepoan,
irargia bezela goiznabarraren kolkoan.*

"Arbolape itzela" deritzon olerkian bere burua ikaraz ikusten du, ilunez inguraturik:

*Baso bakartian illun mordo birrinduak
darioz gauari adar ixiletan bera.
Tantaidi itzelean azur-maminek minbera
goizalde barririk argituko ote zeruak.*

*Mendiz beteko zeruan ez dakust izarrik
T'ulu arteko bidean illergi-zidarrik.
Nere esku bi batuetan biloiz yat eguna.*

*Bakarrik dakust, ikaraz, aizete zolia,
amildegi sakonean zeru irulia
eta bi begi aurrean jabildan illuna.*

Etsipen airea dario hurrengo olerkiari; tristura da nagusi "Esku elberak" izenburua jarri dion hamalauko honetan; ondorengo ataltxo hau hautatu dugu:

*Argi guztiak ilda yayo oi yataz egunak
gauen zerraldorako gorpu-txorta belunak
ta bizia doakit norabako itzelez
itsaso asarrean txalupa kaxkar bat lez.*

Gai hutsala darabil "Erdi-lo" izeneko olerkian; baina bere barne-egoera egoki adierazten digu, beste askotan bezala:

*Besaulkian nago ni erdi-lo
ezertxoren ardurarik gabe
ezer egin bearrik ezaren
pozak dakarzan orduen jabe.*

*Ez nekerik, ez minik, baketsu,
zorion altzopean ixilik,
lumatxo bat aidean bezela
geldiaren egoan zintzilik.*

*Argi zuriz beteko zeruan,
auxe une gozoa benelan
neu ere izar dirdiratsu bat
ete naizen ustez amesetan.*

Ametsezko hego liluragarrietan airatu nahi du errealitate garrazari ihesi. Azken bi ahapaldiak azpimarratu ditugu: "Lore billa"

*Biziko banaiz, ene amets egin bear au!
Bestela tristura larri onek itoko nau
ta urgora sakon onek iruntsi betiko.
Gero zer? Goian izarrek dirdir milla malko.*

*Orrexegaitik nabil ni beti amesetan,
esku luze, itxaropenaren ateetan,
egunen baten izango ete dan niretzat
aren baratx ederretako larrosaren bat.*

Hari beretik doa hurrengo olerkitxoan: gurariak ezin betea, ametsik ederrenak zapuztea adierazi nahi digu; eta lortu ere ederki lortzen duela esan daiteke. "Hau dok hau" jarri dio izenburutzat:

*Hau dok hau lorra,
gurariak esperantza
adarretan eskegita
utzi beharra.*

*Neure uskeriaren ondakinak
gau bazterrean abaztuta
utzi behar hau.*

*Beti amets joanaren orbel zimelak
esku kikilez biltzen
eta nun gorderik ezaz
edonun utzi behar hau.*



Ekaitzak ekaitz, itxaropenari eusteko gogo tinkoa adierazten digu; izenburua ere "Eutsi" jarri dio:

*Itxaropenik ez dot gal gura
ta otza dodan arren eskura
-etsipenok alde batera-
beti izango atea zabal-zabal
datordana artzeko apal apal
aragi triste onen gainera.*

Gogoa ametsetan, goi-goitik hegan, baina gorputza astun, "Pixu gordin onek makurtzen nau" dio. Nahi eta ezinaren balantzan ari da "Logura" izeneko olerkian; bere barneko izatetik edota izan nahi lukeenetik geroago eta urrunago:

*Ze astun dodan neure gorputz au!
Zartzaroaren nekea ete?*

*Pixu gordin onek makurtzen nau,
Orma zaar, arrakalaz bete.*

*Kemen-arriak ditut lur jota,
untzak jan daroastaz ametsak,
gogo-gelan milla pipi mota,
kolkoan itxaro erre autsak.*

*Neure izatearen ertzetik
kanpo aldean ez ete nago,
goldeskua artzeko indar barik,
neuretik gero ta urrunago?*

Hala ere maitasunaren gaia da haren olerkietan gartsuen ageri dena. Horrelakoetan pluraleko lehen pertsona darabil; batzuetan beren-beregi azpimarraturik: *geure gu bion geroa*. "Ilezinak" jarri dio ondorengo olerkiari izenburua:

*Zure lora gorriak zabal genduzanean
atsonez bete zan, maite, gure abaroa
eta bertako zokorik ezkutuenean
betikotu genduan geure gu bion geroa...*

*Bizi-bizi zan ene aragi gordinean
zure abao aundituaren jarioa,
zurru-zurru bait zan ezia zure soinean
maitasun gozoz ler arteino nire agoa.*

*Argiñoak ereinez goldaska lerroetan,
zein eder zan, maite, gure egunen joana,
eguzki barriak noiz loretuko ete zai.*

*Gu gara agorrezineko odolen ibai,
itxaso barrietara ganezka doana.
Ene maite, ilezinak gara gu benetan.*

Bere maiteen artean du gelako bakardadea, hain abegi gozoz eta bake osoz hartzen duena. Atzizki txikikariak eta alite-

razioek aire kutuna ematen diote olerkiari. Argi dago gelako bakardade hori idazleak gogoetarako eta goi-argi bila egin ohi duen ahaleginerako lagunik onena gertatzen zaiola; beraz, nahiko idealizaturik agertuko digu:

*Ba dot gelatxo bat txukuna,
iradu bako soinu eztia,
asarre bako itzen kabia,
ene zulo txo txiki kutuna.*

*Leiotik ba datorkit ozena
aizearen deadar bizia,
eurien arteko eguzkia,
zeru gorenaren margo gardenena.*

Maitasun-sentimenduak adieraziko dizkigu "Gun bi baten" izeneko olerkian; ohi duenez, biziki eta gartsu:

*Ba zenki zein andia dodan neure biotza,
gora odolez bete, arbola gorri bat lez.
Bere gerizpean nai zaitut ondoen babes,
ene arima kutun, argi garbi aratza.*

*Zeru egingo deusut egun gozo bakoitza
beti zeure ondoan, inguratzen izarrez,
zure garri naroa, ain guritasun ederrez,
aspaldi neuretzako daukastasun eskaintza.*

"Mutil zaarrarena" izeneko olerkian, berriz, maitasunik ezaren tristura agertuko digu. *Laster aiz jausiko -kabi bako zugaitza*, diotso zorrozki. Sonetoaren lehen bi atalak azpimarratu ditugu:

*Iñoiz odol-mosurik artu bako biotza,
ik ez dakik, ez, zer dan ezpan biren beroa
t'ezingo dok astindu eure azurren otza
edurrez betikotu baitok eure geroa.*

*Laster aiz jausiko -kabi bako zugaitza-
bidertzean galduta, adar t'enbor iroa.
Txori kanturik eza izan dok ire gaitza,
etsipenez beteko gun taupada bakoa.*

"Zurrunbilloen zerua" izenez dakarren olerkia aurrekoaren alderantzia da:

*Oa, neskatotxo eder
bere besoen berora
ta emaion eure osoa,
jai beteenerako lora.*

*Eta biok (begietan
argi bete nabarmena)
izango larra ezean
gau baltzaren zoramena.*

Bere maite-olerkietan bete-betea sartzekoak dira ondorengo hauek ere: "Ba neki", "Larrosa gorria", "Goiz alba beteak" eta "Sagarra:

Ba neki

*Ba zenki nola dodan gogora
- goizalba gorrixkaren urgora -
zure aragiaren zuria,
zure sabel ertzaren guria.*

*Ba zenki nola dodan gogora
- su errekor baten eiagora -
zure ezpanen irakin gorria,
mozkorrez beteko ontzi gorria.*

*Ba zenki nola dodan gogora
- eguzkia odolean gora -
zure begi ederren berdea,
iturri argi luzez betea.*

Larrosa gorria

*Eskuetan darabilt
- au ene poz gorria -
ametsak moldatzeko
buztin-ore oria.*

*Kolkoan sentitzen dot
- au bai poz biribilla -
lurraren taupakoa
t'uraren izkanbilla.*

Goiz alba beteak

*Goazen baratz urdinera
krabelin ponpoxen artean,
perla kolorez dizdizean
urpeko izarren argira.*

*An izango biok poz-pozik
urandi gazien nagosi,
gure idun eta bekoki
itxasbelarrez koroiturik.*

*Eta nakarezko burdian
- lau arrain gorriri lotua -
zainduren bion erreinua
goiz alba beteen erdian.*

c. Estiloa eta forma.

Behin eta berriro esan dugunez, Anjel Bidaguren barnekoia da; sentimenduen barrunbeak ikertzen saiatzen dena. Gizakiaren alderdi ezkutu hori maisuki adierazten digu. Ez dakigu garbi erdal poetaren baten arrastoan ote dabilen, hau da,



poeta handi eta ezagunen baten oihartzunik ote den lumotar honen olerkietan. Frogatzen zail diren susmoak egitea zilegi balitz, Migel Hernandez aipatuko genuke.

Barruko sentimenduen bilbe mehen arteko gorabeherak bertso neurtu eta errimatuetan lotuegi gelditzen zirelako izan dugu batzuetan. Olerkariak hegada libreagoa opa zezakiola bere buruari. Hala ere, bide errezari uko egiten dio Bidagurenek. Olerkien neurri eta hoskidetasuna zaintzen zorrotza da.

Neurri luzeko olerkiak hautatzen ditu gehienetan. Zortzi silabatik beherakoak eta zortzikoak ere ageri dira, baina maizago bederatzikoak, hamarrekoak, hamalaukoak... Ahapaldi motei dagokienez, era askotakoak ditu; agian, laukoak dira gehien ageri direnak. Hala ere maiteen duen forma sonetoa (hamalaukoa) dela dirudi. Euskal olerkariengan ez da hori hain normala. Izan dira beren-beregi sonetoak idatzi dituzten

idazle bakan batzuk. Alfonso Irigoienek, esaterako, olerki-liburu txiki bat guztia sonetoetan egin zuen...

Azkenez, Anjel Bidagureni buruz hauxe esango genuke: euskal literaturaren irakurleen artean ez du behar zukeen oihartzunik izan. Bizi zela oso gutxik ezagutzen zuten haren lorategiko altxorra. Bere garaiko olerkaria zen. Ez zuen euskara baturik eta ortografia baturik erabili. Gehien bat bizkaieraz landu zituen bere olerkiak eta ortografia zaharrean. Baina aurreko lerroak irakurri ahala edonor ohartuko da olerkari fin-fina eta goi-mailakoa zela. Hil zela zortzi urte direnean ezagutu eta dastatuko ahal dute literaturzaleek haren emaitza joria.

III. OLERKIEN BIBLIOGRAFIA OSOA

Anjel Bidagurenen olerkien bibliografia osoa jartzen dugu hemen, argitaratu ziren ordena berean, azkenean oraindik argitaratu gabe dauden olerkien izenburuak gehituz.

1974

Ene lagun, Karmel 1974-2, 57.

1975

Bildur nok..., PV 10 (1975,116.zk.) 5.

1980

Egunon, Olerti (1980) 81-83.

Zoriona, Olerti (1980) 83-84.

1982

Gora Zu, Ama Teresa, Karmel 1982-2/4, 173-174. / PV 17 (1983,150.zk.) 7.

1983

Itxaroaren ildoak, Olerti (1983) 219-22.

1984

Azi gorriak, Zer (1984,74.zk.) 2.

Billa ta billa, Zer (1984,77.zk.) 2.

Soñeko barriak, Zer (1984,73.zk.) 12.

Morda umak, Zer (1984,77.2k.) 2.

Biziaren ederra, Olerti (1984) 166-167.

Guzur eta egiak, Olerti (1984) 169-170.

Ezaren utsa, Olerti (1984) 164.

Koldar, Olerti (1984) 165.

Lapurretan, Olerti (1984) 165.

Uyolak, Olerti (1984) 168.

1985

1984, -XII-19, Zer (1985,88.zk.) 16 .

Attitterena, Zer (1985 84.zk.) 16a.

Eta ni zer?, Zer (1985,88.zk.) 16.

Illek, Olerti (1985-86) 247.

Kopin ausia, Olerti (1985-86) 248-249. / Zer (1986,97.zk.) 16.

Lauoinkan, Zer (1985,90.zk.) 12.

Miruarien kiñuak, Zer (1985,84.zk.) 16a.

Negu otza, Olerti (1985-1986) 245.

Nekazari, Olerti (1985-86) 246.

Pauper pauperrimus, Zer (1985,84.zk.) 13.

Bakar-bakarrik, Karmel 1985-3, 110.

1986

Amodio bakarra, Zer (1986,98.zk.) 4.

Betiko loa, Zer (1986,93.zk.) 2.

Doana doala, Zer (1986,98.zk.) 4.

Etsipenarena, Zer (1986,96.zk.) 5.

- Gogorregi ez zure zigorrak?* [Has.], Zer (1986,96.zk.) 5.
Gorrotoa, Zer (1986,93.zk.) 2.
Gu pekatariok, Zer (1986,100.zk.) 30.
Gudaria, Zer (1986,103.zk.) 14.
Ilezinak, Zer (1986,97.zk.) 11.
Logura, Zer (1986,100.zk.) 30.
Mosu eroak, Zer (1986,93.zk.) 9.
Oi Euzkadi, Zer (1986,97.zk.) 11.
Pozaren atzetik, Zer (1986,99.zk.) 5.
Lauaxetaren maitale kutuna, Karmel 1986-4, 104-105.
Pozaren laburra, Zer (1986,96.zk.) 1a.
Uste dozu ugartea zarala, Karmel 1986-4, 106.
Lore billa, Karmel 1986-1, 112.
Geroa, Karmel 1986-3, 111.
AIZE ORIETAN, Hondarrabia (1986,9.zk.) 12-14.
 Apurka, Hondarrabia (1986,9.zk.) 12. / Karmel 1988-3, 107.
 Boil uztua, Hondarrabia (1986,9.zk.) 12.
 Izarrak, Hondarrabia (1986,9.zk.) 13. / Karmel 1988-1, 108.
 Udazkena, Hondarrabia (1986,9.zk.) 13.
 Gorroto, Hondarrabia (1986,9.zk.) 13.
 Eneok, Hondarrabia (1986,9.zk.) 13.
 Ba nintzake olerkari, Hondarrabia (1986,9.zk.) 14.
 Ta gizona ez?, Hondarrabia (1986,9.zk.) 14.

1987

- Arri barriak*, Zer (1987,112.zk.) 15.
Basa loiak, Zer (1987,112.zk.) 15.
Galdu zara? Lagun, Zer (1987,112.zk.) 15.
Lumo, Zer (1987,112.zk.) 7.
Unerik ederrena, Zer (1987,107.zk.) 7.
BIZIAREN ARIAN:
 Asierakoa, Olerti (1987-90) 112.
 Udabarrikoa, Olerti (1987-90) 113.
 Udakoa, Olerti (1987-90) 113.
 Udagoiengoa, Olerti (1987-90) 114.

Negukoa, Olerti (1987-90) 114.
Amaierakoa, Olerti (1987-90) 115.

1988

"ZER", Zer (1988,119.zk.) 14 .
Zelakoa ete?, Zer (1988,119.zk.) 16.
Amets illa, Zer (1988,120.zk.) 4.
Egun galdua, Zer (1988,123.zk.) 5.
Egutegia, Zer (1988,118.zk.) 5.
Orbelak, Zer (1988,124.zk.) 10.
Udazkena, Karmel 1988-1, 103.
Bizia, Karmel 1988-3, 101.
Jaunaren hurrunean, Karmel 1988-4, 100.

1989

Fedegabezia ta fedea, Zer (1989,127.zk.) 16.
Ez negarrik, Zer (1989,136.zk.) 12.
Akarak, Zer (1989,135.zk.) la.
Tontorra, Zer (1989,135.zk.) la.
Ibaia, Karmel 1989-1, 112.
Erio, Karmel 1989-2, 103.
Izen donea, Karmel 1989-2, 109-110.
Genesis, Karmel 1989-3, 111-112.
Gelatxoa, Karmel 1989-4, 110.
Zer gara?, Karmel 1989-4, 111.

1990

Atejoka, Zer (1990,144.zk.) 11.
Jo sendo, Karmel 1990-1, 101.
Sospalak, Karmel 1990-1, 109.
Lo garbia, Karmel 1990-2, 123.
Arbolape itzela, Karmel 1990-2, 124.
Oi gure poeta, Karmel 1990-2, 125.

1991

Bakea, Karmel 1991-1, 103; Karmel 1992-1, 87.
Ur tanto gaziak, Karmel 1991-1, 104; Karmel 1992-1, 88.
Uso illak, Karmel 1991-1, 105; Karmel 1992-1, 88.
Estiarena, Karmel 1991-1, 107; Karmel 1992-1, 88.
Onbide zaarra, Karmel 1991-1, 108; Karmel 1992-1, 88.
Garaurik garau, Karmel 1991-1, 109; Karmel 1992-1, 90.
Zoramena, Karmel 1991-1, 109; Karmel 1992-1, 91.
Sanpedroak, Karmel 1991-2, 97; Karmel 1992-1, 91.
Amesetan, Karmel 1991-2, 98; Karmel 1992-1, 92.
Uztaro jairako, Karmel 1991-2, 99; Karmel 1992-1, 92.
Biak bardiñak, Karmel 1991-2, 108; Karmel 1992-1, 93.
Ibili biurrian, Karmel 1991-3, 106; Karmel 1992-1, 93.
Nire egunak, Karmel 1991-3, 107; Karmel 1992-1, 94.
Bizi osoa, Karmel 1991-3, 108; Karmel 1992-1, 94.
Ba goaz, Karmel 1991-3, 109; Karmel 1992-1, 95.
Zer gaituk?, Karmel 1991-4, 101; Karmel 1992-1, 95.
Bakarrik, Karmel 1991-4, 102; Karmel 1992-1, 96.
Erdi-lo, Karmel 1991-4, 103; Karmel 1992-1, 96.

1992

Bakea, Karmel 1992-1, 87; Karmel 1992-1, 96.
Etxe zaarra, Karmel 1992-1, 97; Zer 1991, 150.zk., 11.
Doana doala, Karmel 1992-1, 98; Zer 1991, 150.zk., 11.
Lurraren guna, Karmel 1992-1, 98; Zer 1991, 152.zk., 5.
Gurariak, Karmel 1992-1, 100; Zer 1991, 150.zk., 11.
Txinboa, Karmel 1992-1, 100; Zer 1991, 152.zk., 5.
Ura, Karmel 1992-1, 101; Zer 1991, 152.zk., 5.
Tentaldia, Karmel 1992-1, 101; Zer 1991, 152.zk., 5.
Oroilboiltxoak, Karmel 1992-1, 102; Zer 1991, 155.zk., 12.
Larrosa beroa, Karmel 1992-1, 103; Zer 1991, 155.zk., 12.
Oa gazte, Karmel 1992-1, 103; Zer 1991, 155.zk., 12.
Gun gaztea, Karmel 1992-1, 104; Zer 1991, 158.zk., 2.
Txalupako zaarra, Karmel 1992-1, 104; Zer 1991, 158.zk., 2.

Arbola pilloa, Karmel 1992-1, 105; Zer 1991, 158.zk., 2.
Negua, Karmel 1992-1, 105; Zer 1991, 158.zk., 2.
Gorrotoa, Karmel 1992-1, 106; Zer 1992, 159.zk., 1^a.
Erregua, Karmel 1992-1, 106; Zer 1992, 159.zk., 1^a.
Au bai arrigarria, Karmel 1992-1, 107; Zer 1992, 159.zk., 1^a.
Esku elberak, Karmel 1992-1, 108.
Doana doala, Karmel 1992-1, 109.
Gun bi baten, Karmel 1992-1, 110.
Kolko epela, Karmel 1992-1, 111.
Argia, Karmel 1992-1, 112.

1997

Marineltxoarena, Karmel 1997-2, 126.
Burdi zaarra, Karmel 1997-2, 127.
Bostekoa, Karmel 1997-2, 128.
Lauaxeta, Karmel 1997-3, 136-137.
Gorririk gorri, Karmel 1997-4, 129.
Bedeinka naizu, Karmel 1997-4, 130.
Pausoak, Karmel 1997-4, 131.
Mutil zaarrarena, Karmel 1997-4, 132.
Eutsi, Karmel 1997-4, 133-134.
Gixajo berekoia, Karmel 1997-4, 135.
Bertso gorriak, Karmel 1997-4, 136-138.
Gora, Karmel 1997-4, 139.
Kontuz, Karmel 1997-4, 140.
Apurrak, Karmel 1997-4, 141.
Zurrunbilloen zerua, Karmel 1997-4, 142.
Joan dira, Karmel 1997-4, 143.
Odolean tap eta tap, Karmel 1997-4, 144.

1998

Baneki, Karmel 1998-1, 134.
Larrosa gorria, Karmel 1998-1, 135.
Mailuka, Karmel 1998-1, 136.

Oa arin, Karmel 1998-1, 137.
Lama goria, Karmel 1998-1, 138.
Betirauna, Karmel 1998-1, 139.
Lillura utsa, Karmel 1998-1, 140.
Illunaldia, Karmel 1998-1, 141.
Misterioa, Karmel 1998-1, 142.
Udabarrikoa, Karmel 1998-1, 143.
Urandi sakona, Karmel 1998-2, 112.
Goiz alba beteak, Karmel 1998-2, 113.
Areatzarik areatza, Karmel 1998-2, 114.
Milla kaia, Karmel 1998-2, 115.
Ertz gaztiak, Karmel 1998-2, 116.
Ondartza zuriak, Karmel 1998-2, 117.
Sagarra, Karmel 1998-2, 118.
Alargunarena, Karmel 1998-2, 119.
Arrantzu leku, Karmel 1998-2, 120.
Attitterena, Karmel 1998-2, 122.
Sutondoan, Karmel 1998-2, 123.
Arri barriak, Karmel 1998-2, 124.
Aintza ta aintza, Karmel 1998-2, 125.
Ez abaztu, Karmel 1998-2, 126.
Poza ta samina, Karmel 1998-2, 127.

1999

Dana guzurra?, Karmel 1999-2, 112.
Merke aldiak, Karmel 1999-2, 113.
Sugarria, Karmel 1999-2, 114-116.
Pozaren arian, Karmel 1999-2, 117-119.
Gorroto, Karmel 1999-2, 119.

Orainarte argitaratugabeak:

Amen (Esk. 1)
Udabarri (Esk. 68b).

Erri eria (Esk. 68c).
Askatasuna... (Esk. 68d).
Jauna, iltera doan onek agurtzen zaitu (Esk. 68e).
Eskekoarena (Esk. 68f).
Maite dot erria (Esk. 68g).
Hau dok hau (Esk. 68h).
Ba noa (Esk. 68i).
Sagarrondoa (Esk. 68j).
Ni barik zer? (Esk. 68k).
Zelakoa ete? (Esk. 71).
Biribillegia (Esk. 73).
Geroa (Esk. 77).
Illak (Esk. 77b).
Nekazari (Esk. 78).
Alperrarena (Esk. 85).
Emazte maitea (Esk. 89).
Gabon kanta (Esk. 107).
Gaua (Esk. 114).

A. Bidagurenen itzulpenak:

Argitaratutakoak:

AMADOR, Dolores, *Baietza ala ezetza*, Olerti (1981) 66-67.
AMADOR, Dolores, *Subako autsak*, Olerti (1981) 65-66.
DARIO, Rubén, *Negulkoja*, Zer (1983,70.zk.) 10.
ESTEVEZ, J., *Lapurra*, Karmel 1998-2, 121.
GARCIA LORCA, F., *Udako madrigala*, Zer (1989,136.zk.) 12.
HERNANDEZ, Miguel, *Argi eta illunaren seme*, Olerti (1982) 77-81.
HERNANDEZ, Miguel, *Guda*, Olerti (1981) 67.
HERNANDEZ, Miguel, *Izerdiak*, Zer (1990,145.zk.) 11.
HERNANDEZ, Miguel, *Zure sabel ertzak*, Zer (1985,85.zk.) 10.
UNAMUNO, Migel, *Ateoaren otoitza*, Zer (1989,126.zk.) 14.
UNAMUNO, Migel, *Erio*, Zer (1988,120.zk.) 4.
UNAMUNO, Migel, *Erioaren bizitza*, Zer (1988,121.zk.) 14.

UNAMUNO, Migel, *Euria dala Bilbotik urteeran 1910'ko irailaren 20'an*, Zer (1988,120.zk.) 8.

UNAMUNO, Migel, *Fedegabezia ta fedea*, Zer (1989,127.zk.) 16.

UNAMUNO, Migel, *Gure ixillekoa*, Zer (1988,120.zk.) 9.

UNAMUNO, Migel, *Itza*, ZER, (1988,121.zk.) (Esk. 54).

UNAMUNO, Migel, *Lezea*, Zer (1989,126.zk.) 5.

UNAMUNO, Migel, *Neure 70 urte betetzerakoan*, Zer (1988,120.zk.) 4.

UNAMUNO, Migel, *Sutondoan*, Karmel 1998-2, 123.

Argitaratugabeak:

HERNANDEZ, Miguel, *Senar gudariarena* (Esk. 124-125).

MACHADO, *Esaerak*. (Esk. 115).

Julen Urkiza - Luis Baraiazarra